

OHAR INFORMATIBOA

I. Eranskinean ageri direnek (**destino-aukera duten izangaiak**), oinarri orokorretako 14. oinarriaren arabera, honako **ekintzak** egin behar dituzte, izangaien zerrenda duen ebazpena web orriaren argitaratu eta **hurrengo 15 egun balioduneko epean**:

1. **Destino-aukeraketa** web orriaren. Behar diren [azalpenak](#) ematen dira destino-aukeraketa elektronikoa web orri honetan egin ahal izateko.

2. Zita eskatzea Osakidetzako Prebentzioko Zerbitzuak **azterketa medikoa** egin dezan.

Hautaketa Zerbitzutik interesdun bakoitzari jakinaraziko dio, izena emateko eskabidean adierazitako posta elektronikoa edo telefonoaren bitartez, zein zentrotan eskatu behar duen azterketa egiteko zita.

Zentroak ezarriko dizu azterketa hori zein egunetan egin.

3. **Baldintzak eta meritua egiaztatzen dituen dokumentazioa balioztatu/entregatzea.** Interesdunen eskura dago web honetan [dokumentazioa entregatzeko Eredua](#). Dokumentu hau beharrezkoa da epearen barruan ematea.

- Destinoaz jabetzeko aukera duten Osakidetzako langileek bere zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan eskatu behar dute zita dokumentazioa balioztatzeke.
- Osakidetzako langile ez direnek, izapide horiek Zuzendaritza-Nagusiko Hautaketa Zerbitzuan egin behar dituzte.
- Dena den, derrigortasun-data iraganda duten lanpostuaz jabetzeko, euskarako hizkuntza-eskakizunaren fotokopia konpultsatua bidali behar da, baldin eta eskatutako hizkuntza-eskakizun hori lehendik ez badago Osakidetzaren esku (oinarri orokorretako 14.2 oinarria), eta baita homologazio- edo baliokidetzaren prozesuaren ostean lortutako deialdian eskatzen den titulazioa ere (6.2.c oinarria).

Edozein interesdunek **izangaien behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioa** aurkez dezake, izangaien behin-behineko zerrenda duen ebazpena argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Horretarako, [erreklamazio-Eredu](#) bat dago web honetan.